251. zk.
Bigarren aroa
Apirilak 15
2015

Irungo euskarazko hamabostekaria

Irunero

Kirola
Denboraldiko aurreikuspen onenak bete ditzake Leka Eneak

9. orrialdea

Erreportajea
Jabier Muguruza idazle eta musikariaren ibilbidea

3. orrialdea



Jaso ezazu IRUNERO etxean !!
jarozena@irunero.com
693 828099

Amets Maiztegi maila handian dabil mendi-eskian

4 Elkarrizketa: Esther Barandiaran piano-jotzailea.
4 Elkarrizketa Hawaii gozotegiko Eva Urigain opilari buruz mintzo da
6 Inkesta Hendaia ezagutzen duzu?
10 Haurren Leihoa Txingudi Ikastola HH
11 Gurasoentzat Frustrazioa eta nerabezaroa: beharrezkoa den emozioa
12 Gazteen lanak San Vicente Paul DBH1
13 Gaztea: Yon Gallardo Bidashop merkatarien elkarteko presidentea
14 Gazte infor
15 Kultur agenda

Kirola paduran

Yurre Ugarte

Plaiaundin pausatzea otu zitzaion hontz bitxi bati, Zingira Hontza (*Asio flammeus*) delakoari, joan den hilabetearen lehenengo egunean. Dozena bat kurrilo arrunt (*Grus grus*) Plaiundiko padurara egokitu ziren egun berean gertatu zen Zingira Hontzaren bisita; hain justu, Afrikatik zetorren Miru Beltz (*Milvus migrans*) batek geldialdia bertan egin zuen egun berean. Hegazti hauen guztien hegaldiak egin zuen topo haur, gazte eta heldu ugariren korrikaldi, lasterraldi eta orotariko atletismo entrenamendurekin, padura berean kokaturiko kirol-instalazioak direla medio, baiki.

Seguruenik, gizaki-hegazti uztarketa honek bereizten du Plaiaundiko Parke Ekologikoa Europan dauden gainerako parkeetatik. Parke naturalaren eta kirol instalazioaren halabeharrezko elkarbizitza honek, gizaki irundarrek beren buruei ez ezik hegaztiei ere inposaturikoak, bere horretan dirau urteak joan eta urteak etorri, Txingudi Babesteko eta Ordenatzeko Plana onartu zenetik hogei urte luze joan diren arren. Hogei urte Europako erakundeek Plaiaundi ZEC (Kontserbazio zona berezia) eta ZEPA (hegaztientzako babesgune berezia) izendatu zuenetik; hogei urte haur, gazte eta heldu irundarrak atletismo entrenamendu eta lasterketak Parke Ekologikoan egiten; hogei urte irundarrontzat Irunen atletismo kirol instalazio egokirik gabe; hogei urte hegaztiak uxatzen; hogei urte paduraren ekosistema oztopatzen. Hogei urtekoa, udaletxeko arduradunen utzikeria. Ez du honek esan nahi gizakiok lehenagotik ez dugula ekosistemarik bortxatu eta izorratu, noski; bazterrotako urbanismoari begiratu besterik ez zaio egin behar. Tira, Europako Erakundeek ZEC eta ZEPA izendaturiko zonak egokitzeko epea lau urte barru amaitzen da. Beraz, azken txanpan kokatua dago Irungo Udala kirol instalazioak Plaiaunditik ateratzen ahalegintzeko. Atletismorako (besteak beste) eremu aproposa aukeratu (behingoagatik interes ekonomikoak ahaztuko balituzte eskertuko genuke) eta eraiki egin behar da. Epearen barruan gauzatu ezean, isunak baitatozkio udalari. Era berean, atletismorako instalaziorik gabe gera daiteke Irun, epe horretatik aurrera Plaiaundiko instalazioak desagerrarazi beharko direlako. Hemengo atletek beste herrietako kirol instalazioetara hegan egin beharko dute. Eta agian, isunak ordainaraziko dizkiete paduran dabiltzan Kurrilo Arruntei, Afrikatik datorren Miru Beltzari eta Zingirako Hontzari.

Irun atzo Irun gaur

Berrotaran kalea atzo eta gaur

IUA: 12270

Foruen karrikan hasi eta Joaquin Gamon kaleraino doanari Berrotaran deitzea ebatzi zuen Udalak 1887. urtean.

Jatorri irundarreko abizena da Berrotaran. José Monjek, artxibozain ohi eta *Irungo kaleen izenak* liburuaren idazleak, aldiz, izen bereko pertsonaia ospetsu gutxi aurkitu ahal izan zituen:

- Antonio Berrotaran, 1864an Junkal elizako kanpaia urtu zuena Hondarribian.
- Frantzisko Berrotaran: Santiagoko Markes eta Kapitain Jeneral irundarra Venezuelako probintzian, eta Karaskaseko Gobernadorea, XVII. eta XVIII. mendeetan. Frantzisko Gaintzak *Historia de la Universidad de Irun-Uranzu* liburuan hauxe dio Berrotarani buruz: "Carlos II.ak 1692an Caracasera bidali zuen, holandarren esku zegoen Curaçaoko koloniak gehigikeria asko egiten zituelako errege-eskubideen kaltetan. Eskubideak handitu zituen, holandarrak arrastoan sartuz neurrigabekeriei zein askatasunei dagokienez". Erregeak, sari moduan, Santiago Haraneko Markes titulua eman zion.

Argazkian, Berrotaran kalean 1950ean zegoen Cervantes liburudenda. Geroago antzinako objektuen denda bat jarri zuten, izen bera mantenduz.

Irunero

Erredakzioa eta maketazioa:
Joseba Arozena eta Unai Oiartzun
Euskara zuzentzailea:
Xabier Kerexeta
Publizitatea:
Sonia Garcia Olazabal, Amaia Terrazas
amaiaterrazasruiz@gmail.com

Ion Otxoa
ion@943sansebastian.com
Argitaratzailea:
Baseclick S.L.
ISSN: 1134-0606
Lege gordailua:
SS-230-94.

Maiatzaren Lehena, 23 - 20304 IRUN
Tel: 673 39 84 57

Anaka kalea, 11
IRUN
943.61.54.57

TABISA
TANATORIO DEL BIDASOA

San Pedro kalea, 49
HONDARRIBIA
943.64.54.57

BETIDANIK KONFIANTZA ETA ARDURAREKIN

Ayuntamiento Udala
irun
www.irun.org

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA ETA KULTURA SAILA
Hezkuntza Politikarako Sailburuordetza
DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN, POLÍTICA LINGÜÍSTICA Y CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua

Gipuzkoako Foru Aldundia

Erakunde honek Irunero diruz laguntzen du

Haizea kontra

Presaka iritsi da Jabier Muguruza elkarrizketarako hitzordura. Atzo kazetari atzerritar batekin afaltzen egon zen, eta goizean entsegua eduki du Donostian. Abiadan etorri da autobidetik. Gaur egungo bizimoduaz kexu da: "Ni saiatzen naiz barne erritmoa eta kanpokoa bat etor daitezen. Baina benetan zaila da batzuetan. Burugabea da egiten ari garena". Konbentzituta dago bere barne tenpoa "lasaia" dela. Bere obran, behintzat, saiatu izan da erritmo hori errespetatzen.

Beste hogei izan zen Jabier Muguruzaren azken diskoaren izenburua. Bakarlari gisa egindako hogei urteak ospatzeaz gain, argi uzten zuen musikagintzan aurrera jarraitzeko asmoa. Hala ere, hurrengo diskoa prestatu beharrean, idazteari ekin zion artista irundarrak. "Ez da izan musika alde batera uztea, kontzertuak ematen jarraitu dudalako; baina egia da bizpahiru urtez kontakizun hauek idazten ibili naizela", azaldu du. Bernardo Atxagak zuzentzen duen *Erlea* aldizkarirako idatzi zuen "Hilen logika ezkutua" ipuina. Hura izan zuen abiapuntu. 2014ko udazkenean, izen bereko ipuin bilduma argitaratu du Muguruzak. Ipuin zale amorratua da. Egileen zerrenda esaten hasi, eta tupustean gelditu da: "Euskal Herrian ere, idazle handi batzuk ipuingintzan hasi ziren, eta gero nobelara pasa dira; baina, nire ustez, lanik ederrenak ipuingintzan egin dituzte. Arazoa da ipuinak ez duela proiekziorik. Gehiago saltzeko eta beste zirkuitu batean sartzeko, nobela idatzi beharra dago".

Kantuekin egin izan duen bezala, bere kezkak eta gogoetak islatzen saiatu da "Hilen logika ezkutua" ipuinean ere, baina sakonago: "Ez daude igogailuan kontatzen ditugun moduan. Literaturak aukera hori ematen dizu". Gehienetan, ikusi, entzun edo irakurritako gertakariak eta egoerak izaten dira Muguruzaren kontakizunen abiapuntua. Ez bereak bakarrik, baita inguruko jendearenak ere. "Neurri batean, gauza asko hartzen ditut errealitatetik. Hori bai, gero errekreazio bat dago, fikzioa ere badago", argitu du. Nolanahi ere, egunerokoan oinarritutako gaiak jorratzen ditu gehienbat sortzaile irundarrak: "Batzuek gutxietsi egiten dute egunerokotasuna. Aspergarria delako, edo errutinarekin lotzen dutelako. Niretzat bizitza ez da aspergarria". Euskal Herrian, joera bestelakoa dela uste du Muguruzak: "Erregistro epikoa da nagusi, batez ere gazteen artean. Denborarekin konturatzen zara bizitza askoz ere konplexuagoa dela". Intimismoaren alde egiten du irundarrak, literaturan eta musikan: "Kontzertuko ikusle bakoitzari banan banan abesten saiatzen naiz. Hori rockean ez da gertatzen, multzoari abesten zaio".

Musikan erosoago

Beste garai batzuetan ere Muguruzak uztartu izan ditu musika eta literatura. Dena den, onartu du berarentzat exijentzia handiko jarduera dela bigarrena: "Nekagarria da. Oso erne egon behar duzu, radarra beti martxan. Libreta batekin, apunteak hartzen. Niretzat oso garrantzitsuak dira oreka eta osasun mentala. Alde horretatik, ez dakit oso gomendagarria den". Idatzi izan duenean, gehienetan haurrei zuzenduta egin du. Eskakizun maila berdinean jartzen dela baieztatu du, baina onartu du zailtasun bereziak dituela helduentzat idazteak: "Helduon errealitateari buruz zerbait zorroztasunez kontatzeak jarrera bat eskatzen du. Nire ikuspuntutik behintzat, bizitza oso aberatsa da, alderdi asko ditu". Haurrak interesgarri iruditzen zaizkio, bera ume berezia izan zelako. Bost urterekin akordeoia jotzen ari zen, eta zortzirekin Frantzian, Holandan, Italian eta Alemanian zebilen, nazioarteko lehiaketetan jotzen. "Izan nuen auzoan jolasteko aukera, baina txikitatik presioa sentitu nuen".

Nolabaiteko presioa jasaten segitzen du artistak. Esate baterako, bi urtean behin diskoa ateratzera behartzen du bere burua: "Diskorik ateratzen ez baldin baduzu, ez duzu kontzerturik. Gaur egun, diskoa katalogo garesti bat da. Mekanismo bat martxan jartzen du, kontzertuak lortzea ahalbidetzen duena". Kulturgintzak garai txarra bizi duela argi dauka Jabier Muguruzak. "Hori ukatzen duena memoria laburrekoa da", baieztatu du. Kultur egileek gizartean duten pisua jarri du adibide modura. Duela hamar urtekoa baino askoz txikiagoa dela uste du: "Oso momentu arina bizi dugu. Komunikabideetan entretenimenduak dena jan du. Kultur egileak arnasa hartu ezinean gabiltza". Berak, aldiz, kulturaren garrantzia aldarrikatu du. Euskararekin lotuta, kultura aberatsa eskaintzea ezinbestekoa dela azpimarratu du Muguruzak: "Gogoratzen dut, euskara ikasten ari nintzenean, gramatikarekin seko aspertzen nintzela. Baina, halako batean, Atxagaren testu bat eta Ruper Ordorikaren disko bat hartu nituen esku artean. Txundituta gelditu nintzen". Haiek bultzatuta ekin zion Muguruzak bere ibilbideari. Noiz edo noiz, artista gazteren baten akuilu izango da bera ere.

Bere ibilbidearen errepasoa egin du Muguruzak Katalunian

Aspalditik izan du harreman sendoa Jabier Muguruzak Kataluniarekin. Azken aldian, bertako lagunen aitortza jaso du, eta eskertuta dago. Joan den urtean, kontzertu onenei emandako BarnaSants saria jaso zuen. Aurten bere ibilbidearen errepasoa eginez kontzertua ematea eskaini diote, emanaldia grabatu eta disko moduan ateratzeko. Martxoaren 20an aritu zen, Mikel Azpiroz piano-jotzailearekin batera, L'Hospitalet-eko Auditori Barradas antzokian. Kataluniako artista gazteagoen laguntza izan zuen agertokian. Urtetan zuzenean jo gabeko abestiak berreskuratu zituen kontzertu berezi horretarako.

Olaizola Immobiliaria agentzia

Salmenta-Alokairuak
Promozio berriak
Aholkularitza

Beraketa kalea, 17 • 20302 IRUN • Tel: 943 626585
info@inmobiliariaolaizola.com
www.inmobiliariaolaizola.com

Esther Barandiaran

“Nirea ez da lanbide iraunkorra, astero aldatu daiteke”

Javier Sistiaga olerkariarekin arituko da Esther Barandiaran piano-jotzailea apirilaren 29an, Ikust Alaia liburutegian. *Sueños de poder en los dramas de Shakespeare* ikuskizuna eskainiko dute, 19:30etik aurrera. Musika eta hitza uztartzea esperientzia “aberasgarria” dela uste du Esther Barandiaranek: “Hitzak musika indartzen du, eta alderantziz. Entzulearentzat oso gauza erakargarria da”. Begiratua egin dio jole profesionalak bere ibilbideari.

- Nola piztu zitzaizun musikarako zaletasuna?

Etxean ez zegoen musikaririk. Gogoratzen dut txikitan oso beldurtia nintzela. Mediku batek amari gomendatu zion koru batera eramateko, abesten nire beldur guztiak kanporatu ahal izango nituelako. Gerora, askotan pentsatu izan dut oso gauza bitxia izan zela. Mediku hura oso pertsona sentsiblea izango zen.

- Zergatik aukeratu zenuen pianoa?

Etxean piano bat erosi zuten gurasoek. Sei anai-arreba gara eta denoi eskaini ziguten ikasteko aukera. Horrela hasi nintzen, baina oso gustura ikusi nuen nire burua pianoan. Instrumentu osoa da, aukera asko eskaintzen ditu, beste instrumentistei laguntzeko, adibidez. Ez naiz inoiz izan piano-jotzaile handia edo arrakastatsua. Ni baino askoz hobeak badaude. Batez ere laguntzaile moduan edo ganbera-musikan sentitzen naiz eroso.

- Etxetik kanpo osatu zenituen ikasketak. Zer eman zizun esperientzia horrek?

Hamabost urterekin Baionara joan nintzen, musika ikasketetan sakontzera. Gero masterra Suitzan egin nuen, Lausannan, Diputazioak ordaindutako bekari esker. Bost urte zoragarri pasa nituen han, eta argi ikusi nuen nik musikaz bizi nahi nuela. Musikaren inguruko giroa zen, goi mailako maisuak izan nituen eta asko ikasi nuen. Ganbera-musikan murgildu nintzen Lausannan.

- Gaur egun musika eskolak ematen dituzu, baina zuzenekoetan ere aritzen zara.

Apustu bat egin nuen. Errazagoa edo erosoagoa izan daiteke zentro batean irakasten ordu gehiago ematea, bizitza egonkorrago bat izateko. Baina nik kontzertuen edo beste instrumentistekin sor daitezkeen proiektuen adar hori ez dut alde batera utzi nahi izan. Horrek beste jarrera bat eskatzen du. Egunero egon behar duzu aktibo, ikasten eta ikertzen. Batzuetan ez da erraza, baina nik hala nahi izan dut egin.

- Hortaz, zure bizitza ez da egonkorra?

Nirea ez da lanbide iraunkorra, astero aldatu daiteke. Oso aktibo egotea eskatzen du. Askotan pentsatzen dut bolada lasai bat izan behar dudala, eta azkenean ez da horrela izaten. Garrantzitsuena da eszenan egotea eta mugitzea, zure sarea osatzea. Norberak bere bidea diseinatu behar du. Modu asko daude, eta bakoitzak berea bilatu behar du.

- Irakaskuntzak zer ematen dizu?

Eramaten zaitu gauzak birplanteatzera, edo zalantzan jartzera. Ikasleen zalantzak argitu eta arazoak konpondu behar dituzu. Ariketa horiek oso interesgarriak dira. Jende gazteak asko ematen dit, oso ondo pasatzen dut. Zorrotza naiz, hori ere egia da.

- Irunen Itxaso Aristizabalekin osatu izan duzu bikotea askotan. Jarraitzen al duzue?

Urte asko daramatzagu, eta saiatzen gara errepertorioa berritzen. Lausannan ginela sortu genuen bikotea. Gure kezketako bat izan da euskal egileen musika ezagutzera ematea. Bestalde, asko interesatzen zaigu kontzertu pedagogikoen gaia. Ilusio handiz egin izan ditugu eskaini dizkiguten proiektu guztiak.

Hawaii gozotegiko Eva Urigain

“Garrantzitsuena gozogilearen eskua da”

Milaka haurrek eta gaztek jasoko dute opila amabitxiaren eskutik, apirilaren 25ean. Horietako asko Hawaii gozotegiko lantegian egindakoak izango dira. Ia mende erdia darama Urigain familiak opilak prestatzen. Sekreturik ez dutela baieztatu du Eva Urigainek, Juan Jose eta Mertxe sortzaileen alabak.

- Non dauka jatorria opilaren errezetak?

Nire gurasoek Elgorriaga txokolate fabrikan lan egiten zuten. Aita komertziala zen, eta amak bonboiak egiten zituen. Almendrazko bizkotxoaren formula On Francisco Elgorriagak eman zion nire aitari. Duela berrogeita hamahiru urte, gurasoek Hawaii gozotegia ireki zutenean, bonboigintzarekin hasi ziren. Lantegi propioa eduki genuenean, opilak egiten hasi ginen. Elgorriaga desagertu arte, almendra han ehotzen genuen.

- Errezeta aldatu al duzue denbora guzti honetan?

Aldaketa txikiak egin izan ditugu, baina oinarria, osagai nagusiak, berdinak dira. Kantitateak aldatu dira batez ere, orain askoz ere opila gehiago egiten ditugulako. Makineria asko aldatu da garai batekoarekin konparatuz gero. Hala ere, garrantzitsua da azpimarratzea guk masa edo batidoa eskuz irabiatzen dugula. Ez du makina batek beso mekaniko batez irabiatzen, gozogilearen besoak baizik.

- Zein da opil ona egiteko gakoa? Baduzue trikimailurik?

Norberak bere trukoak ditu. Baina garrantzitsuena gozogilearen eskua da. Irabiatzerako orduan, gozogileen artean ezberdintasun handia egon daiteke. Ematen dituzten buelten kopurua, erabiltzen duten indarra... Aldagai asko dira kontuan hartu beharrekoak. Etxean ere berdina gertatzen da sukaldean. Osagai berdinekin sukaldatzen duzunean, batzuetan emaitza hobea izaten da besteetan baino. Hemen berdina da.

- Lehengaiek ere badute garrantzia.

Bai, noski. Gureak erabat naturalak dira. Tardientako irina erabiltzen dugu, oso garestia. Eta almendra Reuseko Kooperatiba batetik ekartzen dugu. Koipe asko duen almendra da, bizkotxo mamitsua gera dadin. Pascualen gorringoa erabiltzen dugu, Osasun Ministerioak pasteurizatua erabiltzera behartzen gaituelako. Garai batean arrautzak banan bana kraskatzen genituen, eskuz. Batzuek almendra-hautsak erabiltzen dituzte, eta urarekin nahastu. Horrela ateratzen dira gero bizkotxo lehorrak.

- Zenbat opil saltzen duzue?

5.000 opil inguru saltzen ditugula esango nuke, Irungoak eta Hondarribikoak batuta. Jendea astebete lehenago hasten da enkargatzen, ez lehenago. Opila oso gauza pertsonala da, eta amabitxiari, normalean, opila ikustea gustatzen zaio. Hori dela eta, aldez aurretik enkargatzea ez da ideia ona. Hobea da momentuan erostea, aldaketak egin ahal izateko. Guk normalean ondorengo apaingarriak jartzen ditugu: koloretako pikorrak, gozokiak, txitoa, luma, palmeratxoa eta arrautzak. Gorriak, txokolatezkoak edo bietakoak izan daitezke.

- Zeliakoentzako opilak egiten dituzue. Nolakoak dira?

Bai, nire semea zeliakoa delako. Duela hogei urte hasi ginen egiten. Almendrazko bizkotxo arrunta da, eta Zeliakoen Elkarteen Espainiako Federazioari esker, irin berezia lortu dugu. Lakasitoak jartzen dizkiogu, zeliakoentzako gozokiak, eta Simon Collek egindako txokolatezko arrautza bereziak. Ezberdintasunik ez da nabari.

- Opilak kanpora bidaltzen dituzue?

Nire alabari gozogintzako produktuen artean gehien gustatzen zaiona almendrazko bizkotxoa da. Duela hiru urte Estatu Batuetan egon zen ikasten, eta eduki zuen penarik handiena izan zen opilik ezin izango zuela jan. Atzerrira ezin baita elikagairik bidali. Baina guk, behintzat, Estatuan zehar bidaltzen ditugu orain opilak. Kolpeen kontrako materialarekin biltzen ditugu. Horiek bai, aldez aurretik enkargatu behar dira, lehenbailehen, gainera. Aurten apirilaren 22an edo 23an bidaliko ditugu.

- Oroitzapen bitxirik al duzu San Markos Egunaren inguruan?

Hondarribiko Santiago kaleko gozotegiko garaia gogoratzen dut. Bezero batzuek zortzi, hamar edo hamabi haur besotako zituzten. Ilusio ikaragarriarekin etortzen ziren urtero. Haiei opil bana oparitzen genien.

SAN MARKOS EGUNEKO OPILAK

Goian, Eva Urigain. Behean, Enrique de Gregorio gozogilea, Hawaiiko opilak prestatzen.

BAKAILAOA DASTA EZAZU

la bacaladera
bacalaos SANTYMAR
RJ BACALAO
la barajilla bacalaos
Egullor 1957 Bacalaos

Inkesta

Hendaia ezagutzen duzu?

Florencio Velero

Hendaiara askotan joaten naiz, oraintxe bertan Hendaiara noa familiarekin. Maiz paseatzera joaten naiz hondartzako ingurura, *Dunbetaraino* joan-etorria egin ohi dut. Herria ere asko ezagutzen dut; San Bizente Elizaren eta nazioarteko zubiaren historia kontatu zidaten.
Uste dut jende asko hondartzara zuzen joaten dela eta Hendaiako historiaz ez duela ezer ezagutzen.

Mari Cruz Martínez

Egia esan, ez dut Hendaia asko ezagutzen, askotan joan naiz baina ez dakit gehiegi gure bizilagunei buruz. Joatekotan, udaberrian eta udan joateko ohitura daukat, oinez ibiltzera batez ere.
Nahiko polita ikusten dut azkeneko urteetan, Bidasoa ibaiaren ertzetik jarri duten zubia oso ibilbide polita iruditzen zait.

Javier Cristobal

Hendaiara turismo egitera eta hondartzara urte osoan zehar joaten naiz. Ene irudiz jendeak gutxi ezagutzen du; hondartza izan ezik, herriko beste leku asko ezezagunak dira hainbat irundarrentzat.
Batzuetan erosketak egiten ditut.

Karen Rivas

Hendaiara sarri joaten naiz. Aisialdian, hondartzara eta paseatzera nire mutil-lagunarekin batez ere. Ez gara udan bakarrik hurbiltzen, neguan ere Hendaiara eta Iparraldeko beste hiri batzuetara joan ohi gara, Baionara edo Donibane Lohizunera, adibidez. Oso herri lasaiak dira.
Halaber, jogurtak eta animalientzako janaria Hendaian erosten ditugu.

Carla Rivas

Hendaiako hondartzako zona ezagutzen dut batik bat. Herriko zentroa, berriz, ez dut ezagutzen. Hondartzara askotan joaten naiz udan, baina urtean zehar, oso gutxi.
Nire gurasoek batzuetan erosketak egiten dituzte Hendaian.

Wilfredo Figueroa

Gutxitan joaten naiz Hendaiara. Hurbiltzekotan, hondartzara joateko, batez ere. Dena den, batzuetan han egiten ditut erosketak, elikagai batzuk merkeagoak direlako eta gustukoak ditudalako.
Hendaiako erdialdea ez dut ezagutzen, jende gehienak bezala hondartzara edo erosketak egitera zuzen joaten naiz.

Belaunaldien arteko topaketak zabaldu ditu Caser Anakak

Laugarren aldiz antolatu ditu aurten Caser Residencial Anakak *Conociéndonos* belaunaldien arteko topaketak. Pio Baroja Institutuko ikasleekin egin izan dituzte orain arte. Proiektuak arrakasta izan duela eta aberasgarria izan dela ikusita, San Migel auzoan dagoen San Vicente de Paul ikastetxeko haurrekin egiten hasi dira aurten.

Hilean behin hurbiltzen dira San Vicenteko ikasleak Caser egoitzara, adinekoekin harremanetan jarri eta jarduera ezberdinak egiteko. Sei eta zortzi urte arteko haurrak dira, lehen eta bigarren mailetakoak. Ikasturte osoko proiektua da, urrian hasi eta ekainera artekoa.

Topagune horien bidez, balioen elkartrukea dute helburu Caser Residencial-eko kideek. “Egoitzetan bizi diren adinekoekiko gazteek izan ditzaketen jarrerak aldatu nahi ditugu”, azaldu du Elena de la Fuente Caserreko gizarte langileak. Baliabide-, esperientzia- eta jakintza-iturri izan daitezke adinekoak ikastetxeetako haurrentzat.

Belaunaldien arteko topaketa esperientzia aberasgarria da.

Anaka kalea, 8 - IRUN 943 667780

CASER ANAKA

GURE AITONA-AMONEN ONGIZATEA HELBURU

Egonaldi iraunkorrak eta aldi baterakoak

Zubieta, 121 - HONDARRIBIA 943 647169

CASER BETHARRAM

Elurretan gora eta behera

Maila handian dabil Amets Maiztegi mendi-eskian

Open Altitoy-Ternua lasterketa irabazi du Amets Maiztegi irundarrak, Uxue Fraile donostiarrarekin bikotea osatuta. Pirinioetan egiten diren mendi-eski probetan ezagunena da Altitoy. Luz Saint Sauveurren jokatu dute, martxoaren 8an eta 9an. Euskadiko Txapelketa ere irabazi du aurten bikoteak. Neguko denboraldi bikaina egin ondoren, eskiak alde batera utziko ditu laster Maiztegik, bizikleta hartzeko edo zapatilak janzteko.

Hirugarren aldiz irabazi du Amets Maiztegik Altitoy proba. Bigarrena du segidan. Aurrekoetan Nahia Quincoces mendexarra izan du bikote, eta aurten Uxue Frailerekin aritu da. Bi eguneko mendi-eski proba da Altitoy. VIII. edizioan, Midi de Bigorre tontorra eta Luz Ardiden eski estazioko harana zeharkatu behar izan dituzte. Egun bakoitzean 2.000 m-ko desnibel positiboak gainditu dituzte parte-hartzaileek. "Alpeetan jokatzen diren proba handiagoen mailara iristen ari da. Asko gogortu dute Altitoy", baieztatu du Amets Maiztegik. Aurkaririk ez dute izan, ordubeteko abantaila atera diotelako hurrengo emakumezko bikoteari. Maila handia eman dute, hala ere. Probaren ezaugarriak azaldu ditu Maiztegik: "Elkarlan handia eskatzen du bikotekideen artean. Oso harreman polita sortzen da, komunikazioa ezinbestekoa delako, denbora guztian".

> "Oso harreman polita sortzen da, komunikazioa ezinbestekoa delako"

Txikitatik eskiatu izan du Amets Maiztegik. Gurasoekin eski alpinoan ibiltzen zen pistetan. Beste kirolak ere probatu zituen gaztetxoa zenean. Atletismoan ibilia da, krosetan eta pistan lehiatzen. Unibertsitatea amaituta, eskiaren mundura hurbildu zen berriro. "Trabesia (mendi-eskia) ezagutu nuen ondoren, eta materiala erostea bururatu zitzaidan. Lagunekin eta mutilarekin hasi ginen, gure kasa, trabesiako ibilbideak egiten", gogoratu du Maiztegik. Interneten saltsan zebilela, Altitoy probaren berri izan zuen. Aitarekin izena eman zuen, lasterketaren nondik norakoak gehiegi azaldu gabe. "Beranduago konturatu ginen astakeria zela", onartu du, barrez. Gipuzkoako Mendi Federazioak antolatutako ikastaro batean parte hartzea erabaki zuten, mendi-eskian lehen urratsak emateko. Parte-hartzaileak adinaren arabera banatu zituztenez, Nahia Quincoces ezagutu zuen Amets Maiztegik.

> "Nesken parte-hartzea oso eskasa da kirol honetan"

Selekzioko arduradunak bikotea osatzea gomendatu zien, neska gutxi izaten direlako mendi-eski probetan. Arrazoia eman dio Maiztegik: "Nesken parte-hartzea oso eskasa da kirol honetan. Ezezaguna delako, edo exigentzia maila oso handia delako. Gure urteroko aldarrikapena izaten da". Hortaz, aitak Nahia Quincocesekin trukatu zuen izenematea. Urte hartan denbora kontrol zorrotzak jartzea erabaki zuten Altitoy probako antolatzaileek, eguraldiaren baldintza txarrak zirela eta. "Bukatzear geundenean, probatik kanpo utzi gintuzten. Gehiago entrenatzeko, eta hurrengo urtean bueltatzeko esan ziguten", azaldu du Amets Maiztegik. Hala egin zuten. Bueltatu soilik ez, proba irabazi zuten urtebete geroago. Aurrerantzean, elkarrekin entrenatzen eta lehiatzen aritu ziren Maiztegi eta Quincoces, bigarrenak urrats bat gehiago eman zuen arte. Espainiako Kopan lehiatzen ari da orain buru belarri.

Eskakizun handiko zaletasuna

Neguan zehar ibiltzen da Amets Maiztegi mendi-eskian. Berarentzat kirol erakargarria dela azaldu du: "Naturaz askatasunean gozatzeko aukera handia ematen du. Gainera, ez da eskia bakarrik. Oso kirol fisikoa da, iraupena eta indarra lantzen dira. Baina teknika ere ezinbestekoa da". Material ugari behar izaten da mendi-eskian lehiatzeko: eskiak, botak, kaskoa, bastoiak, eskien behealdean itsasten diren foka larruak, motxila, babeserako tresnak, edari eta elikagaiak. "Garestia da materiala, eta pixkanaka eskuratzea komeni da", azpimarratu du Maiztegik. Materialak adinako buruhausteak ematen dizkio entrenamenduak. Elurra urrun dauka, eta asteburuetan baizik ezin izaten da hurbildu. Astean zehar entrenamendu fisikoa egiten du, mendian korrika, edo bizikletan. Aurten ezohiko aukera izan du. Nahikoa elur izan denez, Aloña Mendin entrenatu ahal izan du, lantokitik hurbil. Oñatiko eskola batean dabil Amets Maiztegi, Gorputz Hezkuntzako irakasle. Kirola du, beraz, afizio eta ofizio

Denboraldiaren balorazio baikorra egin du Leka Eneak

Bederatzi talde izan ditu aurten Leka Eneak mahai-teniseko ligetan. Talde bana ia kategoria guztietan. Elkarteko kideak pozik daude Superdibisioetako talde nagusiek lortutako emaitzarekin. Baina harro begiratzen diete, batez ere, gainerako kategorietan ari diren haur eta gaztetxoei. Sonia Etxazarreta teknifikazio zentroa fruituak ematen ari da.

Zortzi talde ditu Leka Enea elkarteak kategoria desberdinetan.

Denboraldiko aurreikuspen onenak bete ditzakete Leka Enea mahai-tenis elkarteko talde nagusiek, hurrengo sasoian Europa mailan jokatzeko sailka daitezke Superdibisioko bi taldeak. Mutilek jada lortu dute txartela. Neskek, berriz, lehia bizia izango dute oraindik azken bi jardunaldietan. Sailkatzea lortzen baldin badute, denboraldiaren balorazio bikaina egin ahal izango du Leka Eneak. “Dauzkagun jokalariekin, bosgarren postutik gora gelditzea pentsaezina da guretzat”, argitu du elkarteko jokalari eta entrenatzaile den Fernando Garcíak. Horregatik, Europa mailan aritzeko sailkatzea arrakasta handia da Leka Enearentzat: “Kontuan hartu behar da oinarrizko helburua maila mantentzea dela, ez baita erraza. Berdintasuna ikaragarria da Superdibisioetan”.

Leka Enearen erreferentzia edo ikur nagusi dira Superdibisioetako taldeak. Hala ere, beste zazpi talde ditu elkarteak gainerako kategorietan. Adinari dagokionez, mahai-teniseko ligak irekiak dira. Beraz, jokalari gazteak eta beteranoak uztartzen ditu Leka Eneak taldeetan. Esate baterako, Fernando Garcíak Euskal Ligan jokatzen du: “Elkarteko bospasei beterano elkartzen gara urtero, eta taldea ateratzen dugu”. Mahai-tenisean, adina baino gehiago, entrenatzen emandako orduak begiratu behar direla azaldu du Garcíak: “Hamabi urteko haurrak berrogeita hamar urtetik gorakoen kontra irabazten ikus ditzakezu”.

Ligez gain, adin maila bakoitzeko txapelketak egiten dira. Horietan, Leka Enea elkarteko jokalariak maiz izaten dira podiumetan. “Taldeka irabazten dugu batez ere, jokalari asko ditugulako”, aipatu du Garcíak.

> “Superdibisioko jokalari bat hazteko, hamar urte behar dira gutxienez”
> Fernando García

Mahai-tenis eskolan ehun haur baino gehiago hartzen ditu Leka Eneak. Sonia Etxazarreta teknifikazio zentroak elkartearen aukerak handitu dituela adierazi du Garcíak: “Azpiegitura ikaragarria da, Europako onenetarikoa”. Gainera, entrenatzaile titulazioa duen neska-mutilen multzo handia du elkarteak. Harrobia lantzeko baldintza onak ditu, beraz, Leka Eneak. Haien lehentasuna dela baieztatu du Fernando Garcíak. Dirurik ez dagoenean, gaztetxoen taldeetan egin ohi dituzte murrizketak talde askok. Kontrakoa egin izan du Leka Eneak. “Ligako txapeldunorde izan ginenean, Europa mailako izar bat fitxatu eta txapeldun izaten saiatzeko aukera izan genuen”, Gogoratu du Garcíak. Nahiago izan zuten dirua harrobian inbertitu: “Azpiegitura honekin, jokalari onak aterako dira, seguru. Baina denbora behar da. Superdibisioko jokalari bat hazteko, hamar urte behar dira gutxienez”.

Estatuko iparraldeko haurrik onenak bildu ditu Leka Eneak Aste Santuan

Bi kontzentrazio hartu ditu Leka Enea elkarteak Sonia Etxazarretan, Aste Santuko oporrak baliatuta. Espainiako Federazioak antolatuta, Estatuko iparraldeko eremuko haurrak bildu dira beheko solairuan. 2003-2004. urteen artean jaiotako neska-mutilek parte hartu dute. Federazioko entrenatzaileek eta selekzioko jokalariek trebatu dituzte. Helburuaren berri eman du Fernando Garcíak: “Arlo teknikoa eta entrenamenduen prestaketa landuko dituzte batez ere”. Goiko solairuan Euskadiko Federazioaren kontzentrazioa izan da. 2002tik aurrera jaiotako jokalariek parte hartu dute.

Astelehenetik ostegunera arte egin dituzte kontzentrazioak. Denbora horretan Irundik kanpoko jokalariek Martindozenea aterpetxean hartu dute ostatu. Ostiralean, apirilaren 2an, Estatuko iparraldeko eremuko zirkuituko txapelketa antolatu du Leka Eneak. 200 parte-hartzaile izan dira, alebin mailatik 23 urtez azpikora. Sonia Etxazarretan eta Artaleku kiroldegian lehiatu dira. Lau proba izango dira guztira zirkuituan. Kategoria bakoitzeko zortzi onenek finala jokatuko dute Irunen, ekainean.

MOTA GUZTIETAKO LAN ETA KONPONKETAK ETXETAN NAHIZ DENDETAN

- Arotzeria
- Margolanak
- Zaharberritze lanak
- Lorategiak
- Iturgintza
- Sarrailak
- Elektrizitatea
- Instalazio zein muntaketak
- Garbiketa bereziak eta abar

DAVID:
655 70 98 93

Txingudi Ikastola HH

ERIK, 5 URTE.



AMAIUR, 3 URTE.

Arrigain Asesores S.L.

ZERGAK - LAN-KONTUAK - KONTULARITZA - ASEGURUAK

Asesoría Arrigain

Zerbitzuak:

Kudeaketa administratiboak, laboralak,
kontularitzakoak eta zergenak
Ibilgailuen eskualdaketak
Ondarearen transmisioak, dohaintzak, oinordekotzak...

Errenta aitorpenak
Aseguru orokorrak
Eta abar...

San Ramon kalea, 3 atzea, sarbidea Euskal Herria hiribidetik – Irun Telf: 943636080 - 676756975 www.arrigain.es asesoria@arrigain.es

Frustrazioa eta nerabezaroa: beharrezkoa den emozioa

Negoziaketaren inguruko adibideak

- Gustuko ez ditugun musikaletrak entzuten baditu mota berdineko musika bilatu, baina letra positibokoak.
- Arropa negoziatu; ez ditugu marka garestiak erosiko, baina bai gustuko duena.
- Zuk ikusi zeure lagunekin zein hizkuntzaz hitz egin (hau ezin dugu ekidin), baina etxean euskaraz hitz egiten dugu. Guk izan behar dugu esaten dugunaren eredu.
- Ez badu kirolik egin nahi, gutxienez bere aukerako bat egin behar duela azaldu.

Haurraren 18. hilabete inguruan ematen da lehen identitate prozesua, eta bigarrena, nerabezaroan. Nerabezaroan ez dira "kasketak" ematen, baina aldi hau gazteentzat protesta garaia da. Gazteek dena beren modura egin nahi dute, ez dute arauen zergatia ulertzen eta ia dena beren kabuz egiteko gai direla uste dute. Ez dituzte mugak ikusten, erabakiak hartu nahi dituzte, nahiz eta jakin badakiten ez direla guztiz gai ardurak bakarrik betetzeko.

Azken ikerketek adierazten dute nerabeen garuna ez dela guztiz osatzen 20 urte bete arte eta, ondorioz, helduok bidean lagun izatea funtsezkoa da autonomia eta heldutasun arduratsua osa dezaten.

Nerabearen prozesua identitate prozesua da. Bere burua aurkitzeko garaia da eta horretarako maiz helduaren kontra egiteko joera izaten du. Gurasoentzat ez da garai erraza izaten, gure aurka joateko behar horretan maiz gure balioen kontra joatea erabakitzen dutelako. Geure musika, janzkera, hizkuntza edo beste ekintzen gustu desberdinak bilatzen dituzte eta gurasoentzat mingarria izaten da. Beste talde, lagungarri gerta dakiguke haiek ere beren bidea eta gustuak bilatzen ari direla eta horretarako gure ulermena eta kokapen egokia garrantzitsua dela ohartzea. Beraiek aski dute jasotzen duten informazio hori guztia bideratzearekin, gurasook beti aipatu ditugun ideia edo balioak ez dira beti kalean daudenak eta, askotan, beste ideia horiek botatzen dizkigute, beraiek ere ez dakitelako zer egin hainbeste informazio edo desinformaziorekin.

Zerikusirik al du frustrazioak honekin?

Gurasook gure haurren heziketa positiboa bideratzeko maiz muga edo erreferentzia positiboak behar ditugu eta, ondorioz, haurra edo gaztea frustratu behar dugu. Baina nola bideratu baietzen eta ezetzen oreka gai honetan?

✔ Lehen aipatutako **IDENTITATE** bidean ezin dugu gogorki sartu debekuan inolako negoziaziorik gabe. Gaztea bide ezberdinak esperimentatu behar ditu bere nortasuna eraikitzen joateko; musika, lagun, kirol, hizkuntza, jantzi… ezberdin, eta kasu horietan kontra ipintzen bagara gehiago sartuko da helduok gustuko ez dugun bide horretan. Adi egon beti; jakin zertan ari den, baina bere bidea positiboki eraikiko duen konfiantzarekin. Bere gustuak errespetatu eta gureak azaldu, konfiantza bideratuz. Negoziaketa hori da: lehenik, gaztea ulertu; gero, gure iritzia edo modua ipini hark ere uler dezan, eta, azkenik, biok ongi sentitzen garen erdibidea bilatu.

Baina orduan noiz **FRUSTATU** behar dugu, noiz esan behar dugu ezetz fermuki?

✔ Gazteek betebeharrak badituzte. Eskolara joan behar dute, beren zaintza pertsonalaa arduratu, etxeko lanetan kolaboratu… Kasu honetan betebeharrak argi ipintzeak garrantzia handia du, eta egunero betearazten saiatzeak. Helduok gai honekin uste ona izatea eta presente egotea funtzeskoa da, baina gainean gehiegi egon gabe. Adibidez:

- Goizean lasai jaiki, gosaldu ondoren jaso erabilitako gauzak, jantzi eta garbitu; ohea egin eta gela txukun utzi, agurtu goxotasunez…
- Etxera etorri eta deskantsatu, baina gero tarte bat hartu etxeko lanak egiteko edo ikasteko.
- Familiarekin gauden bitartean mobila apalean uzten dugu.

✔ Errutina eta ardura hauek ongi finkatu eta negoziatzea komenigarria da hasieratik, baina gero jada ez dago negoziaziorik; eguneroko egin beharrekoak dira. Kasu honetan frustazioa eta onarpena beharrezkoa da.

✔ Ondorioak ipintzea komenigarria da? Tamalez, bai, batez ere gaur egun pantailek duten indarra handia delako… Gazteek pribilegio edo maite dituzten gauza asko dituzte eta, horiekin batera, ardura batzuk. Ardurak betez gero abantaila anitz dituzte, eta alderantziz, ardurak betetzen ez badira pribilegioak galtzen dituzte. Pantailadun tresnak erabili aurretik ardurak bete behar dira, ezta?

Beno, bide honetan helduok ere maiz frustratu egingo gara. Ez da ikasketa erraza, baina batzuetan onartuz eta beste batzuetan berriro jaikiz goaz aurrera.

ONDO IZAN

Mapi Urresti Ortiz
KUTTUN AHOLKULARITZA PSIKOPEDAGOGIKOA.

CENTRO KINEESIS
- METODOA: K-STRETCH ®
- METODOA: HIPOPRESIBOA®
- BERREZIKETA POSTURAL GLOBALA (RPG)
- PILATES
- PILATES HAURDUNENTZAT
www.kineesis.net www.k-stretch.com
Arantzateko Jauna kalea, 10 behe. IRUN. 943 626 983 - 606 298 640

San Vicente Paul, DBH1

TXISTEAK

Irakasleak Jaimitori esaten dio:

- Zuzendaria hona etortzen denean hiru galdera egingo dizkizu: “Zenbat urte dituzu?” Eta zuk esango duzu: Hamar.

“Zenbat urte daramazu ikastolan ikasten?” Eta zuk esango duzu: Bi.

“Zer gustatzen zaizu gehiago, matematika edo hizkuntza?” Eta zuk esngo duzu: Biak. Kontuz, ez zaitez okertu.

Zuzendaria iristen denean Jaimitori galdetzen dio:

- Zenbat urte daramazu ikastolan ikasten?

- Hamar

- Zenbat urte dituzu?

- Bi

- E, mutiko! Tonto aurpegia ikusi al didazu edo nahi didazu adarra jo?

- Biak



AUZOKOEN ARTEKO IKA-MIKA DIGITALAK

Bertakoa naizelako eta ogibide dudalako, irundar zenbaitek sortutako Facebook talde batzuk jarraitzen ditut, gure hirian gertatzen diren gauzei buruz mintzatzea beste helbururik ez dutenak, omen.

Harategiko edo auzokoen arteko solasaldien ordezkotzat edo osagarritzat har ditzakegu on line topaleku horiek. Duela urte gutxi arte, halako solasak ez ziren gure lagunarteko girotik askoz harago iristen; baina plataforma digitalek haien eragina biderkatu dute, praktikan publiko egiteraino.

On line komunitateok kudeatzen hartu dudan eskarmentuaren arabera, elkarbizitza albait atseginena gauzatuko bada, oinarrizko arauak ezarri behar dira: errespetua, spamik ez, taldeari ez dagozkion gaiak ez aipatzea, erlijioa, arrazakeria, sexismoa eta halako gaiak ez jorratzea eta arauok errespetatzen ez dituena taldetik kanporatzeko tenorean irmo jokatzea.

Orain arte, ordea, hasieran aipatzen nituen taldeetariko bakar batek ere ez du halako arautegirik, eta beharbada horrexegatik izaten dituzte liskarrak eguneroko ogia. Ez naiz kideen arteko eztabaidez ari (hori taldearen dinamizatzaile izan daiteke, eta errespetua dagoen artean ez luke problemarik sortu behar), baizik eta, esaterako, komentario arrazista eta xenofoboez; hots, aurrez aurre esanda norbera lotsaraziko luketen horietaz, edo, agian hauteskundeak hurbil direlako, aspaldi honetan areagotutako ika-mika sasipolitiko absurdoez.

Orain arte oso gutxitan ikusi dut taldearen kudeatzaileak halako egoerak eten dituela; horren ondorioz, eztabaida bukaezinak luzatu ahala, gai orokorrarekiko interesa galdu ez ezik, beste kideen partaidetza ere urritzen ahal da.

Eta okerrena da egiaztatzea nola batzuen ezinegona adierazten den publikoki, beste testuinguruetan onetsiko ez litzatekeen moduan, adierazi ere, nahiz eta batzuetan ez garen konturatzen. Ageri-agerian jarduten dugu, eta proiektatzen dugun irudia desitxuratua dago. Ez baitut pentsatu nahi ere irundarrak halakoetan agertzen diren bezalakoak direla. Ez nuke pentsatu nahi

Pablo Moratinos
Marketing Online-ko aholkularia
3yMedia Comunicación Digital

Yon Gallardo:

“Bisitariak ez dira erostera bakarrik etorriko”

Papperino izozki-dendaren lema hartu du aurten Yon Gallardok, gurasoen eskutik. Aldi berean, Bidashop Irungo merkatari eta ostalarien elkarteko presidente egin dute. Beraz, familiako negozioa aurrera eramateaz gain, sektorea biziberritzeko lan egingo du. Hiriak “aisiazko eskaintza” behar duela uste du, bezeroarentzat erakargarri izan dadin.

- Zergatik eta zertarako sortu duzue Bidashop?

Orain arte merkatarien talde moduan lan egin izan dugu, baina ez genuen inolako egitura legalik. Baimenak edo diru-laguntzak eskatzeko, eta batez ere erantzukizun zibilari begira, elkarte bat sortu behar genuen. Gabonetako izotz pistarena bezalako jarduerak antolatzen jarraitu ahal izango dugu horrela. 108 bazkide gara oraingoz, Irungo erdigunekoak eta auzoetakoak.

- Handitzen jarraitzeko asmoa duzue?

Bai, Irungo komertzioen zati handi baten ordezkari izan nahi dugu. Baina, kopuruan handitzeaz gain, jendea parte-hartzailea izan dadin nahi genuke. Bileretara joan dadila, eta ideiak eman ditzala. Ez dugu inolako kuotarik eskatuko. Kanpainen kostuen arabera jarriko dugu dirua, behar baldin bada. Hilean bilera bat egiten ari gara oraingoz. Bileretan ideiak eman eta garatzen ditugu. Gero, jarduera ezberdinez arduratuko diren komisioak antolatzen ditugu.

- Denbora daramazue jarduerak antolatzen. Irunek behar du halako mugimendu bat?

Irunek bizitza behar du. Donostiako edo Iparraldeko lagunekin hitz egin dudanean, esan izan didate Irunen ez dagoela ezer. Ez da egia, ekimenak badaude, baina askotan ez daude ondo iragarrita, oharkabean pasatzen dira, edo buelta txiki bat behar dute komertzialago bilakatzeko. Horretarako gaude gu. Bisitaria ez da erostera bakarrik etorriko, aisiazko eskaintza zabalagoa behar du.

- Zer moduz dago merkataritzaren eta ostalaritzaren sektorea Irunen?

Pertsiana irekitzen duzun momentutik, badakizu borroka egitea tokatuko zaizula. Krisia gogorra eta luzea izaten ari da, baina pixkanaka joera-aldaketa txiki bat nabari dela esango nuke. Egia da komertzio asko itxi direla, baina batzuek erretiroa hartu dutelako itxi dute. Dendak irekitzen ere ari dira, eta asko frankiziak diren arren, kontuan hartu behar da horien atzean beti ez daudela enpresa erraldoiak. Irungo jende askok frankizien alde egin du, erosoagoa delako, irudia eta izena ziurtatzen dituztelako.

- Gurasoen lekukoa hartu duzu Papperinon.

Izozkiak egiten hamaika urte daramatzat, gurasoei laguntzen. Aurten nik hartu dut negozioaren gidaritza, eta pozik nago. Hamasei urte nituenetik ostalaritza ikasi nahi izan nuen, baina gurasoek esan zidaten horretarako banuela aukera etxean. Beraz, Madrilera joan nintzen Ingeniaritza Informatikoa ikastera. Gustatzen zait, eta probatu dut, Madrilen eta Kanadan lanean egon naiz. Hala ere, honek erakartzen ninduen gehien, eta horregatik bueltatu naiz.

- Azalduko dituzu Papperinoren jatorria eta bilakaera?

Papperino nire aitona italiarraren eskutik sortu zen. Donostian hasi zen kafetegi batekin, gero jatetxearekin. Nire gurasoek izozkigintzaren adarrari heldu zioten, eta Irunen jarri zuten denda duela hogeita bat urte.

Berrikuntzaren alde egiten duzue, izozkiekin eta Interneten.

Birmoldatu edo hil, hori da jarrera. Zaporeak aldatu behar dira, joerei jarraituta. Bezeroek komentatutakoaren arabera lan egiten dugu, neurri handi batean. Azkenean klasikoak izaten dira gehien saltzen direnak, baina izozki bereziak ere probatzen ditu jendeak. Horretarako, garrantzitsua izaten da sare sozialetan eta web gunean egiten dugun lana. Obradorean haurrei zuzendutako tailerrak ere egiten ditugu.

Bidashop elkarte berria Zabaltza Plazan aurkeztu zen.

Ekintzak

Gazte Oporraldiak 2015

2015eko udan Udalekuetara joan nahi duzu?

Norentzat: 14 eta 17 arteko nerabeak

Noiz? uztailaren 1etik abuztuaren 28 arte (biak barne)

Izen emateak: apirilaren 13tik 21era

Zozketa: apririlak 29

Informazio guztia: www.gipuzkoangazte.eus/eu/gure-programak/gazte-oporraldiak

Scoot eguna

Scoot erakustaldia Irungo Skate Parkean

Noiz? Apirlak 18

Ordua? 16:00etatik 19:00tara

Prezioa? Doan

Antolatzaileak? Irungo Udaleko gazteria saila eta HS2 kluba.

Izena emateko? 16:00etan, Irungo Skate Parkean bertan.

Asexorate

Sexualitateari buruzko informazioa emango da. Bertan nahi duzun guztia planteatu ahal duzu: zure zalantzak, hausnarketak, zailtasunak edo bitxikeriak, sexualitateari buruzkoak, era indibidualean edo bikote mailan.

Itxaso Carrizo psikologo eta coaching pertsonalean sexologo aditua izango da hitzaldia emango duena.

Noiz? Apirilaren 22 eta 29an.

Ordua? 17:30ean

Non? Igazte bulegoan.

Lehiaketak

San Pedro eta San Martzial jaietako kartela aukeratzeko lehiaketa

Epea: : Apirilak 24, ostirala.

Informazio gehiago: www.irun.org

irun gazte informazioa

- Aurrez aurre: Foruen karrikako 2-behea
- Telefonoz: 943 50 54 44 / 943 50 54 40
- Posta elektronikoz: igazte@irun.org
- Webean: www.irun.org/igazte
- WhatsApp bidez: 607 771 173

IKASTARO ETA TAILERRAK IRUN FACTORY-N

-“Alderdi juridiko fiskalak kultur proiektuari begira”.

- “Branding profesionala eta Komunikazioa 2.0 artean eta kulturan”.

- “Artearen eta kulturaren fiskalitatea. Jakin behar den guztia”.

- “Nominak eta Gizarte Segurantza. Artisten erregimena eta kontratazioa”.

- “Laguntza kulturala eta beste harreman modu batzuk enpresaren mundurekin”.

- “Jabetza Intelektuala eta eskubideen gestioa”

Informazioa gehiago:
Telefonoa: +34 633 351 545
emaila: info@irunfactory.net

Apirilak 22

Zer? “Euskal izenak eta abizenak historian” hitzaldia antolatu du Argoiak Elkarteak.

Hizlaria? Koldo Ortega, Esperientziaren Eskolako irakaslea.

Ordua? 17:00etan.

Prezioa? Doako sarrera

Non? Bertsolari Uztapide 6.

Apirilak 24

Zer? Jam Session musika kontzertua.

Non? Royale Club
Cipriano Larrañaga, 8

Ordua? 23:30ean.

Prezioa? Doako sarrera

Apirilak 29

Zer? Sukaldaritza tailerra, Danako jatetxeko David Rodriguez sukaldariarekin.

Ordua? 17:00etan.

Prezioa? Doako sarrera

Non? Argoiak Elkartea.
Bertsolari Uztapide 6.

Apirilak 19

Zer? Cinema Paradiso Zine-Klubak “Home” filma proiektatuko du Ekozinema zikloaren barruan.

Ordua? 19:00etan.

Prezioa? Doako sarrera

Non? Kabigorri Ateneoa.

"BIDEARI KANTARI" KONTZERTUA

Zer? Omenaldia Done Jakue bideetako iragan garaietako eta gaur egungo erromesei. 90 minutuko ibilbide musikala mendeetan zehar, bost abesbatzaren parte-hartzearekin.

Larreaundi Abesbatza, Elizondo Abesbatza, Albada Antzinako Musika Taldea, Bidasoaldeko Abesbatza eta Betiko Ametsa Abesbatzaren eskutik.

Noiz? Apirilak 19

Non? Amaia KZn

Ordua? 11:30ean

Antolatzailea: Jacobi Ekartea

Liburuaren azoka “Nazioarteko Eguna”

Urtero bezala, “Liburuaren Nazioarteko Eguna” ospatuko da Irunen.

Noiz? Apirilak 23 eta 24

Non? Zabaltza plazan.

Ordua? 11:00etan hasiko da.

Bestalde, “Don Quijote de la Mancha” eta “Ni Vera”ren jendeaurreko irakurketa egingo da.

Ordua? 10:00etan.

Non? Udal Liburutegian

Noiz? Apirilak 23.

EKAR teleinmobiliaria
Nafarroa ibilbidea, 7 – IRUN
info@ekarinmobiliaria.com
☎ +34 943 628 333
www.ekarinmobiliaria.com

PRIMERAKO AUKERAK

Pisua salgai Irun San Juan
Azalera 60 m², 2 gela, bainugela, egongela, sukaldea, trastelekua, berogailu elektrikoa, hegalderuntz, eguzkitsua.
Ref: 04207 109.000 €

Pisua salgai Hendaia
Azalera 65 m², 2 gela bikoitz, bainugela, komuna, egongela, sukaldea, terraza, trastelekua, berogailu elektrikoa, hegalderuntz, eguzkitsua eta bista politekin. Aparkalekua barne.
Ref: 03511 175.000 €

Pisua salgai Irun San Juan
Azalera 80 m², 3 gela, bainugela, egongela bizimiarekin, sukaldea, balkoia, hegalderuntz, eguzkitsua eta bista politekin. Zaharberritua.
Ref: 04333 155.000 €

Pisua salgai Irun San Juan
Azalera 45 m², 2 gela, bainugela, komuna, egongela, sukaldea, balkoia, berokuntza eta igogailua. 2000ko eraikina.
Ref: 04356 140.000 €

Pisua salgai Irun Palmera
Azalera 85 m², 3 gela, 2 bainugela, egongela, sukaldea, balkoia, trastelekua, igogailua, berokuntza, eguzkitsua.
Ref: 04299 248.000 €

Pisua salgai Hendaia Erdian
Azalera 90 m², 3 gela, 2 bainugela, egongela, sukaldea, berokuntza. Hirugarren pisua, igogailurik gabe.
Ref: 04345 180.000 €

Etxea salgai Hendaia-Behobia
Azalera 194 m², 2.000 m²ko terrenoa, 4 gela, 2 bainugela, egongela, sukaldea, terraza, biltegia, berokuntza, jardina, eguzkitsua. Garajea barne.
Ref: 04349 550.000 €

Lokala salgai Irun San Juan
Azalera 40 m², komuna eta eskaparate polita.
PRIMERAKO AUKERA!!
Ref: 04305 210.000 €

Lokala salgai Irun Urdanibia plazan
Azalera 25 m², Obra berria.
Ref: 04358 83.000 €

Eskari handiagatik, alokatzeko etxebizitzak behar ditugu!!

Zure erosketa **Irungo Merkatuan**
egin nahi baduzu baina joaterik
ez baduzu, egin **Internetez**

Txartel hau aurkeztuz,
garraio zerbitzua dohainik
DTO-Irunero-1415

laplazadeabastos.com
Betidaniko erosketa, orain **on line**